# ZAMUDIOKO
# GIZONEN ETA EMAKUMEEN
# BERDINTASUNERAKO I.PLANAREN
# ZIRRIBORROA

**OHARRA:** Planaren ardatz estrategiko bakoitzari ondorengo kolorea dagokio.

- MAINSTREAMING-a, GENERO IKUSPEGIAREN TRANSBERZALIZAZIOA
- EMAKUMEEN JABEKUNTZA
- BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA
- EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **TOKI ADMINISTRAZIOA** | EM 1. | Udaleko sailetako politika eta jardueretan genero-ikuspegiaren txertaketa kudeatzea. | EM 1.1. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ezagutaraztea. | EM 1.1.1. | Udalerriko eragile, enpresa eta herritarren artean Berdintasun Planaren edukia zabaltzea, hainbat hedabide erabiliz. | Udaleko teknikariek eta politikariek, herritarrek eta gizarte-eragileek Planaz duten ezagutza maila. |
| | | | | | EM 1.1.2. | Teknikarien eta politikarien artean Berdintasunerako Planaren laburpena banatzea. Laburpen horrek eurei dagozkien alderdiak bilduko ditu, batik bat. | Udaleko teknikariek eta politikariek Planaz duten ezagutza maila |
| | | | EM 1.2. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana sustatzea. | EM 1.2.1. | Urteko plan operatiboak egitea. | Urteko Plan Operatiboaren txostena. |
| | | | | | EM 1.2.2. | Udalerri barneko koordinazio egiturak abian jartzea. | Udalerri edota eskualde mailan egitura egonkorra izatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna gauza dadin. |
| | | | | | EM 1.2.3. | Udalerri barneko koordinazio egiturak abian jartzea. | Udalerri edota eskualde mailan egitura egonkorra izatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna gauza dadin. |
| | | | EM 1.3. | Genero-ikuspegia txertatzea udal kudeaketan. | EM 1.3.1. | Udal sailetako proiektu eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzeko lantaldeak antolatzea. | Osatutako lan egituren kopurua; horien jarduerari buruzko asebetetze maila. |
| | | | EM 1.4. | Udal informazio sistemetan sexuaren araberako bereizitako datuak izatea (estatistikak, diagnosiak, txostenak…) | EM 1.4.1. | Udal diagnosi, azterlan eta txostenetan bildutako datuak genero-ikuspegitik balioestea, udal sailetako jarduerak hobetzeko. | Genero ikuspegitik egindako azterketen kopurua; egin beharreko hobekuntzen txostena. |
| | | | | | EM 1.4.2. | Udal informazioa kudeatzeko sistema informatikoak egokitzea, udal arlo guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak bermatzeko, bai eta sistema horietan egoki iritzitako beste datu batzuk gehitzeko ere. | Egokitutako mekanismo informatikoa izatea; genero-ikuspegia txertatzeko beharrezkoak diren datuak sexuaren edo beste aldagarri baten arabera bereizita dituzten Udal diagnosi, azterlan eta txosten motak eta kopurua. |
| | | | EM 1.5. | Kontratazioetan aukera berdintasunerako politika garatzea, eta udal langileak prestatzea eta sustatzea, Udaleko jarduera eredugarri gisa. | EM 1.5.1. | Emakumeek ordezkaritza txikia duten lanpostuetarako kontratazioak egin aurretik ekintza positiboak gauzatzea, emakumeen presentzia areagotzeko. | Egindako ekintza positibo motak eta kopurua. |
| | | | | | EM 1.5.2. | Udaleko langileak eta kargu politikoak sentsibilizatzea eta prestatzea aukera berdintasunaren arloan. | Sentsibilizazio jardueren kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | EM 1.5.3. | Udaleko Prestakuntza Planean aukera berdintasuneko moduluak sartzea. | Prestakuntza Planean sartutako aukera berdintasuneko moduluak, aurreko urteekin erkatuta. |
| | | | | EM 1.5.4. | Langileak hautatzeko eta kontratatzeko prozedurak eta hizkuntza aztertzea. Berdintasun printzipioa bermatuko duten bitartekoak ezartzea. | Udal kontratazioan,prestakuntzan eta sustapenean aukera berdintasunerako politika bermatuko duten Udal bitartekoak izatea. |
| | | | | EM 1.5.5. | Oposizioetako gai-zerrendetan aukera berdintasunari buruzko gaiak sartzea. | Berdintasunari buruzko gaien kopurua oposizioetako gai-zerrendetan. |
| EE 1. | Udaleko emakumeen ahalduntze prozesuak sustatuko dituzten baldintzak sortzea. | EE 1.1. | Udaleko emakumezko langileek eta politikariek, dituzten beharrak ezagutzea, lanpostuan euren egoera hobetzeari dagokionez. | EE 1.1.1. | Eztabaida taldeak sortzea edo Udaleko emakumezko politikari eta teknikariei galdeketak egitea. | Beharrei buruzko txostena. |
| | | EE 1.2. | Banakakoaren konpetentziak garatzea, emakumeen autonomia ekonomikoaren eta erabakiak hartzean parte hartzearen ahalduntzea sustatzeko. | EE 1.2.1. | Udaleko emakumezko langileei euren ahalduntzea hobetuko duten ikastaro edo jardunaldien berri ematea. | Emandako informazio motak eta kopurua; emandako informazioari buruz emakume hartzaileek duten asebetetze maila. |
| | | | | EE 1.2.2. | Udaleko emakumezko langileentzako ikastaroak egitea, ahulduntzearekin lotutako gaiei buruz. | Udaleko emakumeen (teknikariak zein politikariak) prestakuntza eta sustapen beharrei buruzko ezagutza maila; prestakuntza eta ahalduntze jardueretan emakumeen parte-hartze eta asebetetze maila. |
| EC 1. | Udaleko gizonezko langileen artean erantzunkidetasunerako kultura eta zaintzaren etika sustatzea. | EC 1.1. | Etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan Udaleko gizonen erantzunkidetasuna sustatzea. | EC 1.1.1. | Etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan Udaleko gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio barne-kanpaina egitea. | Sustapen-jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| EV 1. | Udalean genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko beharrezkoak diren barne-baldintzak bermatzea. | EV 1.1. | Udalean eta enpresa azpikontratatuetan jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzea. | EV 1.1.1. | Udalean edo Udalak azpikontratatutako enpresetan jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzeko barne-protokoloa osatzea. | Jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzeko Udal protokoloa izatea. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KULTURA ETA KIROLA** | EM 2. | Kultura eta kirol arloan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 2.1. | Gizarte eta kultura arloko Animazio Zerbitzuko jardueretan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 2.1.1. | Udalerriko gizarte eta kultura arloko Animazio Zerbitzuko langileek genero-ikuspegiari buruz beharrezkoa duten prestakuntza eskaintzea. | Genero arloan prestakuntza jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze eta parte-hartze maila. |
| | | | | | EM 2.1.2. | Genero-ikuspegia txertatzen duten kultur jarduerak egiten laguntzea. | Genero ikuspegitik planteatutako jardueren kopurua; gizarte eta kultura arloko ekintzetan genero-ikuspegiaren txertatze maila. |
| | | | | | EM 2.1.3. | Kontuan hartzea emakumeen beharrak, nahiak eta interesak udalerriko kultura eskaintzaren plangintza eta diseinua egitean. | Emakumeen beharren, nahien eta interesen analisi-txostena. |
| | | | | | EM 2.1.4. | Txorierriko Gazte Planaren (Gazte Plana) arloetan genero-ikuspegia txertatzea. | Berriz planteatutako jardueren kopurua. |
| | | | | | EM 2.1.5. | Euren jardueretan genero-ikuspegia txertatuta duten gizarte eta kultur arloko zerbitzu enpresak edo erakundeak kontratatzea. | Euren jardueretan genero ikuspegia txertatuta duten gizarte eta kultur arloko zerbitzuetarako enpresa azpikontratatuen kopurua. |
| | | | EM 2.2. | Kirol jarduerak genero-ikuspegitik planifikatzea eta gauzatzea. | EM 2.2.1. | Genero-ikuspegia txertatzen duten kultur jarduerak egiten laguntzea. | Genero-ikuspegia txertatuta duten kirol jarduera motak eta kopurua. |
| | | | | | EM 2.2.2. | Udalerriko emakumeen beharrak, nahiak eta interesak kontuan hartzen dituzten kirol jarduerak diseinatzea, planifikatzea eta gauzatzea. | Emakumeen beharren, interesen eta nahien analisi-txostena; jarduerak analisiaren emaitzetara egokitzea. |
| | | | | | EM 2.2.3. | Aukera berdintasun arloko prestakuntza eskaintzea Kirol saileko arduradunei, euren lanean genero-ikuspegia txerta dezaten. | Genero arloan prestakuntza jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze eta parte-hartze maila. |
| | EE 2. | Udalerriko kultura eta kirol arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea. | EE 2.1. | Udalerriko kultura eta kirol arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea indartzea. | EE 2.1.1. | Urtero ospatzea Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta emakumeen elkarteek eta tokiko erakundeek parte hartzea ospakizun horretan. | Martxoaren 8ko ekintzetan parte hartu duten elkarteen kopurua (%). |
| | | | EE 2.2. | Zamudioko emakumeen kultura eta arte sorkuntza sustatzea. | EE 2.2.1. | Udalerrian antolatzen diren kultur jarduera guztietan emakumezko artisten parte-hartzea sustatzea. | Aurreko urteekiko azterketa konparatiboa. |
| | | | EE 2.3. | Emakumezkoen kirola sustatzea. | EE 2.3.1. | Kirol elkarte eta taldeekin batera, estrategiak planifikatzea, emakumeen parte-hartzea nabaria izan dadin. | Lortutako akordioak; estrategiak hartzeko egindako bileren kopurua. |
| | | | EE 2.4. | Gizonen eta emakumeen kirol praktika dibertsifikatzea, eta gizonezkoen kiroletan emakumeen parte-hartzea eta emakumezkoen kiroletan gizonen parte-hartzea ahalbidetzea. | EE 2.4.1. | Kirol talde eta federazioetako zuzendaritzakoak prestatzea, kirol guztietan emakumeek parte-hartzeko aukera berberak izan ditzaten oztopoak deuseztatzeko eta kirol-instalazioak egokitzeko. | Egindako prestakuntza motak;hartzaileen asebetetze eta parte-hartze maila; eskainitako ikastaroen praktikotasun maila. |
| | | | | | EE 2.4.2. | Gizonen nahiz emakumeen kirol jarduerak sustatzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. | Sinaturiko babesen kopurua. |
| | | | EE 2.5. | Tokiko jaien garapenean emakumeek parte-hartzea eta euren ordezkaritza bermatzea. | EE 2.5.1. | Emakumeen elkarteak gonbidatzea Jai Batzordean parte har dezaten. | Emakumeen elkarteen parte-hartze maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EC 2. | Erantzunkidetasun kultura eta zaintzaren etika sustatzea. | EC 2.1. | Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatuko dituzten gizarte eta kultura arloko guneak areagotzea. | EC 2.1.1. | Kultura Saileko teknikariak prestatzea, erantzunkidetasunaren kultura sustatzeari buruzko ekintzak eta programak diseina ditzaten. | Prestakuntza saioen kopurua; parte-hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | EC 2.1.2. | Gizarte eta kultur animazio, hezkuntza eta aisia eta astialdiko langileei (hezkuntza eragileak, monitoreak…) metodologia eta bitartekoei buruzko prestakuntza eskaintzea, erantzunkidetasunaren eta zaintzaren etikaren inguruko baloreak sor ditzaten. | Prestakuntza ekintzen kopurua; ekintza horien praktikotasun maila. |
| | | | | EC 2.1.3. | Haurrei eta gazteei zuzendutako aisia eta astialdiko jarduera ludikoak gauzatzea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko. | Egindako ekintza motak eta kopurua; ekintzen helmen maila; parte-hartze eta asebetetze maila. |
| | | | | EC 2.1.4. | Zereginak dibertsifikatzeko tailerrak antolatzea emakumeentzat eta gizonentzat, generoaren eraikuntzak mugatzen ez dituen trebetasunak eta gaitasunak gara ditzaten biek. | Gauzatutako tailer motak eta kopurua; hartzaileen parte-hartze eta asebetetze maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EV 2. | Gizarte, kultura eta kirol eremuetan sexismoa desagerraraztea. | EV 2.1. | Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainen kopurua areagotzea. | EV 2.1.1. | Euren programazioetan emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeari eta desagerrarazteari buruzko sentsibilizazio edukiak dituzten komunikabideei diru-laguntzak ematea, edo horiekin mota horretako artikuluak argitaratzeko negoziazioak gauzatzea. | Komunikabideek hedatutako sentsibilizazio ekintzen kopurua. |
| | | EV 2.2. | Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu objektu soil direla adierazten duten irudiak eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria bultzatzen dutenak desagerraraztea. | EV 2.2.1. | Herritarrak sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoien eta adierazpen moduen inguruan, eduki eta irudiak desagerraraztean inplika daitezen eta horretarako jarritako bideen bitartez salaketak jar ditzaten. | Egindako kanpaina motak eta kopurua; herritarrengan duten eragin maila. |
| | | | | EV 2.2.2. | Gurasoei prestakuntza eskaintzea, irudi eta eduki sexistak identifikatzen ikas dezaten, eta euren seme-alabentzako gizarte eta kultura arloko programazioak aukeratzeko hezkidetza irizpideak erabil ditzaten | Prestakuntza saioen kopurua; xede populazioarenganako helmen maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HEZKUNTZA** | EM 3. | Udalerriko ikastetxeetan hezkidetza sustatzea. | EM 3.1. | Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta HHIko urteko programazioetan hezkidetza txertatzea. | EM 3.1.1. | Ikastetxeetan, hezkuntzako langileen artean eta guraso elkarteetan hezkidetzaren inguruko errealitatea eta beharrak definitzeko azterlanak egitea. | Hezkidetza beharren analisi-txostena. |
| | | | | | EM 3.1.2. | Hezkuntza Saileko teknikariei prestakuntza eskaintzea, hezkidetza eta genero-ikuspegia txertatzeko bitartekoak izan ditzaten. | Jasotako prestakuntza jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | EM 3.2. | 4/2005 Legearen 30 artikulua urratzen duten hezkuntza materialak ez erabiltzea. | EM 3.2.1. | Ikastetxeetako hezkuntza materiala genero-ikuspegitik aztertzea. | Berrikusitako materialen kopurua; egindako hobekuntzen kopurua; dokumentuak genero-ikuspegitik aztertzeko bitartekoak izatea. |
| | | | | | EM 3.2.2. | Liburuak, hezkuntza materialak… erosteko hezkuntza irizpideak ezartzea. | Ezarritako irizpide motak eta kopurua. |
| | | | EM 3.3. | Guraso elkarteek eta ikastetxeek antolatzen dituzten ekintzetan gurasoen parte-hartzea sustatzea. | EM 3.3.1. | Guraso elkarteek eta ikastetxeek antolatzen dituzten ekintzetan gurasoen parte-hartzea sustatzeko kanpaina egitea. | Egindako kanpainaren helmen maila. |
| | | | EM 3.4. | Ikastetxeetako hezkuntza eragileei, gurasoei eta ikasleei sexuaren araberako bereizketarik egiten ez duen lanbide-orientazio arloko prestakuntza eskaintzea. | EM 3.4.1. | Ikastetxeetako irakasleentzako, zuzendaritzarentzako eta gurasoentzako mintegiak antolatzea. | Parte-hartzaileen kopurua eta horien asebetetze maila. |
| | | | | | EM 3.4.2. | DBHko ikasleentzat irteerak antolatzea bere sexuari egokitu ohi ez zaizkion lanpostuetan gizonezkoak eta emakumezkoak dituzten enpresetara. | Egindako irteeren kopurua. |
| | EE 3. | Udalerriko hezkuntza sistemako organo erabakitzaileetan emakumeen parte-hartzea eta zuzendaritza sustatzea. | EE 3.1. | Emakumezko ikasleen ahalduntzea bideratzea, eskola kontseiluan, herritarren kontsulta eta partaidetza organoetan, umeei, gazteei eta nerabeei dagokienez. | EE 3.1.1. | Ikastetxeetan babes ekintzak gauzatzea, material didaktikoen bidez, emakumezko ikasleek parte-hartzeari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza izan dezaten. | Gauzatutako jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | EE 3.1.2. | Eskola kontseiluen eta herritarren kontsulta eta partaidetza organoen osaera aztertzea, umeei, gazteei eta nerabeei dagokienez | Analisien txostena. |
| EC 3. | Ikastetxeetan erantzunkidetasuna sustatzea. | EC 3.1. | Ikasleen artean etxeko erantzunkidetasuna eta zaintza areagotzea. | EC 3.1.1. | Lehen Hezkuntzan tailerrak diseinatzea eta egitea, ikasleek adinaren gaitasunaren araberako etxeko lanak eta zaintzak egin ditzaten. | Hartzaileen kopurua; ikasleen edukien asimilazio maila. |
| | | | | EC 3.1.2. | Erantzunkidetasunaren garrantziaz sentsibilizatzea familiak, eta etxean zein ikastetxean lantzearen garrantziaz. | Sentsibilizazio jarduera motak eta kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | | EC 3.1.3. | Ikastetxeetan sustatzea familiek eta irakasleek osatutako lantaldeak, etxeko lanetan eta zaintzan erantzunkidetasuna sustatzeko estrategiak gara ditzaten. | Sustapen jarduera motak eta kopurua. |
| EV 3. | Hezkuntza sisteman nesken, neska gazteen eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean bitartekotza sustatzea. | EV 3.1. | Ikastetxeetan emakumeen aurkako indarkeria antzematea eta aurrea hartzea, eta harreman egokiak bultzatzea. | EV 3.1.1. | Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleei zuzendutako Emakunderen NAHIKOA programa ezagutaraztea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko. | Programari atxikitako ikastetxeen kopurua. |
| | | | | EV 3.1.2. | DBHko gazteentzako tailerrak antolatzea, indarkeria jarrerei eta jarrera sexistei aurrea hartzeko eta harreman egokiak bultzatzeko. | Egindako tailerren kopurua; neska eta mutil hartzaileen kopurua. |
| | | EV 3.2. | Ikastetxeetan etxeko indarkeria kasuak antzematea eta adostutako protokolo eraginkor bati jarraituz zaintzea. | EV 3.2.1. | Udal ikastetxeko irakasleak prestatzea, indarkeria kasuak antzematen eta horiei erantzuten ikas dezaten. | Hartzaileen asebetetze maila; prestakuntza ikastaroen praktikotasun maila. |
| | | | | EV 3.2.2. | Hezkuntza arloan emakumeen eta umeen aurkako indarkeriaren aurrean bitartekotzarako eta arretarako jarduera protokoloa osatzea eta zabaltzea. | Jarduera protokoloa izatea. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ENPLEGUA, FORMAKUNTZA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA** | EM 4. | Behargintza Txorierri (Tokiko Garapen Agentzia) emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea. | EM 4.1. | Sektore guztietan, batik bat, industria eta zerbitzuen sektoreetan, gizonen eta emakumeen parte-hartzeari buruz sexuaren arabera bereizitako informazioa izatea. | EM 4.1.1. | Erroldako eta udal estatistika iturrietako datuak hobetzeko prozesua gauzatzea. | Estatistika datuak hobetzeko bitartekoak izatea. |
| | | | | | EM 4.1.2. | Udalekoak ez diren datuak eta estatistika iturriak jasotzea. | Estatistika datuak hobetzeko bitartekoak izatea. |
| | | | EM 4.2. | Txorierriko Mankomunitateko Behargintzako programetan generoaren ikuspegia txertatzea babestea. | EM 4.2.1. | Behargintzako programetan genero-ikuspegia txertatzeko laguntza prozesua ezartzea. | Laguntza prozesua izatea. |
| | | | EM 4.3. | Zonaldeko enpresen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea sustatzea. | EM 4.3.1. | Berdintasun politikak txertatzeko arloan garatutako esperientziei buruzko materiala jartzea enpresen eskura. | Enpresei emandako materialen kopurua. |
| | | | | | EM 4.3.2. | Ziurtatzea herri administrazioek eta mendeko enpresek negoziazio kolektiboan neurriak txertatuko dituztela, lan baldintzen berdintasuna eta kontziliazioa bermatzeko. | Hartutako neurri motak eta kopurua. |
| | | | | | EM 4.3.3. | Emakumezkoak kontratatzeko kanpaina egitea, batik bat, gizonezkoenak izan diren lanpostuetarako. | Egindako sentsibilizazio-kanpaina motak; xede populazioarenganako helmen maila. |
| | | | | | EM 4.3.4. | Enpresaren egoeraren diagnosia egiteko laguntzak kudeatzen laguntzea, bai eta emakumearen kontratazioa sustatzeko laguntzak kudeatzen ere. | Laguntzen eta diru-laguntzen kudeaketa sistema. |
| | EE 4. | Zamudioko emakumeek enplegua baldintza berberetan lor dezaten laguntzea. | EE 4.1. | Zamudioko emakumeek mobilizatzea autoenplegua edota ekimenak sor ditzaten. | EE 4.1.1. | Behargintzan emakume ekintzaileen jardueren jarraipena egitea eta horiek sendotzea. | Emakumeen parte-hartze maila autoenplegua sortzean. |
| | | | EE 4.2. | Sektore publikoko eta pribatuko ardura lanpostuetan emakumeen presentzia babestea, sustatzea eta sentsibilizatzea. | EE 4.2.1. | Udalerrian lan egiten duten emakumeei buruzagitzari buruzko prestakuntza eskaintzea. | Prestakuntza jardueren kopurua; jardunaldietan parte-hartze maila. |
| | EC 4. | Udalerrian familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko beharrezkoak diren baldintzak bermatzea. | EC 4.1. | Familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko herritarren beharrak ezagutzea. | EC 4.1.1. | Kontziliazio eta erantzunkidetasun arloan herritarren beharrei, zerbitzu sozio-komunitarioei eta udalerriko enpresetan helburu horretarako ezarritako neurriei buruzko azterlana egitea | Beharren eta ondorioen analisiaren txostena. |
| | | | EC 4.2. | Etxeko lanetan eta besteren laguntza behar duten pertsonen zaintzan gizonen erantzunkidetasuna sustatzea. | EC 4.2.1. | Etxeko lanetan eta besteren laguntza behar duten pertsonen zaintzan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko kanpaina egitea. | Kanpainaren helmen maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EV 4. | Lanean jazarpen sexistaren aurka enpresak sentsibilizatzea. | EV 4.1. | Zamudioko enpresetan jazarpen sexistari aurrea hartzea. | EV 4.1.1. | Lanean jazarpen sexistari aurrea hartzeko jarduera protokoloak izatearen garrantziaren berri ematea. | Sentsibilizazio kanpainaren helmen maila. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **OSASUNA** | EM 5. | Osasun sisteman genero-ikuspegia txertatzea. | EM 5.1. | Osasun arloko diagnosi, plangintza, esku-hartze eta ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 5.1.1. | Osasun arloan berdintasuna bermatzeko neurriak betetzen diren ala ez eta ondorioak balioestea. | Ebaluazio txostena. |
| | | | | | EM 5.1.2. | Osasun arloko langileak berdintasun politiketan gaitzea. | Egindako prestakuntza saioen kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | EM 5.2. | Emakumeei eta gizonei eragiten dieten gaixotasunen ondorioak ezagutzea. | EM 5.2.1. | Emakumeei eta gizonei gehien eragiten dieten gaixotasunei buruzko datuak biltzea, genero-ikuspegitik aztertzea eta Udalak hobetzeko jarduerak proposatzea. | Datu biltzeari buruzko txostena. |
| | EE 5. | Emakumeen osasuna, ongizate psikologikoa eta soziala hobetzea. | EE 5.1. | Emakumeei edota emakume talde jakinei eragiten dieten gaixotasunen berri ematea eta horiei aurrea hartzea. | EE 5.1.1. | Haurdunaldiei, sexu-harreman bidezko gaixotasunei, anorexiari, bulimiari eta abarrei buruzko informazio kanpainak gauzatzea gazteentzat, gurasoentzat eta irakasleentzat. | Egindako sentsibilizazio kanpainen kopurua; herritarrenganako helmen maila. |
| | | | EE 5.2. | Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoan genero-eraginari buruzko informazioa areagotzea. | EE 5.2.1. | Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoari buruzko prebentzio kanpainak egitea genero-ikuspegitik. | Prebentzio kanpaina motak eta kopurua; horien helmen maila. |
| | | | | | EE 5.2.2. | Substantzien kontsumoan eta horrekin lotutako arriskuetan eragina duten genero faktoreei buruzko informazio kanpainak gauzatzea. | Informazio kanpaina motak eta kopurua; horien helmen maila. |
| | EC 5. | Besteren laguntza behar duten edota ezintasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen osasuna sustatzea. | EC 5.1. | Besteren laguntza behar duten edota ezintasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen osasunerako arriskuei aurrea hartzea. | EC 5.1.1. | Besteren laguntza behar duten edota ezintasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeentzako erlaxazio ikastaroak antolatzea eta emakume horiek ikastaroan dauden bitartean besteren laguntza duten pertsonen zaintza ermatzea. | Gauzatutako ikastaroen kopurua; hartzaileen parte-hartze eta asebetetze maila. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EV 5. | Udalerrian tratu txarren biktima diren emakumeen arreta egokia bermatzea. | EV 5.1. | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako esku-hartzea indartzea. | EV 5.1.1. | Udal protokoloa osatzea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko. | Arreta protokoloa. |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GIZARTE ONGIZATEA** | EM 6. | Gizarte Zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 6.1. | Udaleko gizarte ekintza arloko diagnosi, planifikazio eta ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 6.1.1. | Prestakuntza jarduerak egitea gizarte ekintza arloko langileentzat, diagnosiak, planifikazioak eta ebaluazioak genero-ikuspegitik egin ditzaten. | Teknikarien parte-hartze eta asebetetze maila generoaren arloko prestakuntza programetan. |
| | | | | | EM 6.1.2. | Gizartegintzako esku-hartzearen fase guztietan genero-ikuspegia txertatzeko hobekuntzen jarraipen eta ebaluazio jarduerak egitea. | Jarraipen eta balioespen txostena. |
| | | | EM 6.2. | Familia ardurak dituzten eta gizarte laguntzak jasotzen dituzten emakumeei etxebizitzarako sarbidea erraztea, emakume horiek bikotekiderik ez dutela. | EM 6.2.1. | Familia ardurak dituzten, gizarte laguntzak jasotzen dituzten eta gizarteratzeko programa baten barruan dauden emakumeei etxebizitza eskuratzeko udal sistemetarako sarbide erraztea, emakume horiek bikotekiderik ez dutela. | Jardueraren emakume hartzaileen kopurua. |
| | EE 6. | Diskriminazio anitza jasaten duten edota gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta maila hobetzea. | EE 6.1. | Pertsona behartsuentzako eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dutenentzako bitartekoak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta maila hobetzeko. | EE 6.1.1. | Gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden emakume gehiagok etxebizitza eskura dezaten neurriak diseinatzea eta ezartzea. | Hartutako neurriei buruzko txostena. |
| | | | | | EE 6.1.2. | Gizartetik kanpo geratzeko arriskua duten emakumeen enplegua sustatzeko neurriak eta emakume horiek kontratatzeko programak diseinatzea. | Hartutako neurriei buruzko txostena. |
| | EC 6. | Familia ardurak dituzten emakumeen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiten laguntzea. | EC 6.1. | Gizarte laguntzak jasotzen dituzten eta familia ardurak dituzten emakumeei babesa eskaintzea lan munduan sar daitezen. | EC 6.1.1. | Gizartetik kanpo geratzeko arriskua duten, gizarte laguntzak jasotzen dituzten eta lan munduan sartzeko programetan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten emakumeei familiartekoen zaintzaren gastuak ordaintzen laguntzeko ekintza positiboak gauzatzea. | Egindako ekintza positiboen kopurua; hartzaileen asebetetze maila. |
| | | | EC 6.2. | Familia ardurak dituzten emakumeen bikotekideak sentsibilizatzea etxeko lanen eta zaintzaren erantzunkidetasunaren garrantziaz. | EC 6.2.1. | Erantzunkidetasunari buruzko tailerrak antolatzea gizonentzat, hau da, gizarte laguntza jasotzen duten eta familia ardurak dituzten emakumeen bikotekideentzat. | Antolatutako tailer motak eta kopurua; helmen maila, helburuei eta edukiei dagokienez. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EV 6. | Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen egoera hobetzea eta indarkeria egoerei aurrea hartzea. | EV 6.1. | Emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa indartzea. | EV 6.1.1. | Urtero ospatzea Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta emakumeen elkarteek eta tokiko erakundeek parte hartzea ospakizun horretan. | Parte hartu duten erakundeen kopurua; sortutako informazio euskarri motak eta kopurua; xede populazioarenganako helmen maila. |
| | | | | EV 6.1.2. | Zamudioko edo eskualdeko emakumeen aurka gauzatzen diren erasoak sistematikoki salatzea jendaurrean. | Salaketa jakinarazpena izatea. |
| | | EV 6.2. | Gizonak inplikatzea emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan. | EV 6.2.1. | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan inplika dadin gizon-taldea osatzea. | Egindako sentsibilizazio ekintzak; gizon-taldea izatea. |
| | | EV 6.3. | Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta sendotzea. | EV 6.3.1. | Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzat presako ostatu emate zerbitzuak, arreta psikologikorako zerbitzuak, diru-laguntzak eta abar garatzea edo garatzen jarraitzea | Gune berriak sortzea eta mantentzea; horien kopurua eta helmen maila. |
| | | EV 6.4. | Indarkeriaren zikloaren hautemate goiztiarra areagotzea. | EV 6.4.1. | Herritarrentzat indarkeriaren zikloaren informaziorako sentsibilizazio kanpainak gauzatzea. | Kanpaina motak eta kopurua; helmen maila (hartzaileen kopurua). |

| ARLOAK | HELBURU OROKORRAK | | HELBURU ZEHATZAK | | JARDUERAK | | EBALUAZIO-ADIERAZGARRIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HIRIGINTZA, GARRAIOA ETA INGURUMENA** | EM 7. | Hirigintza, Garraio eta Ingurumen arloko politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea. | EM 7.1. | Hirigintza ekintzen planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea. | EM 7.1.1. | Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea eta prestatzea hirigintza hobetzeko, planifikatzeko eta diseinatzeko gaietan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziaz. | Teknikarien parte-hartze eta asebetetze maila generoaren arloko prestakuntza programetan. |
| | | | | | EM 7.1.2. | Hirigintza araudian sartzea hirigintza hobetzean, diseinatzean eta planifikatzean genero-ikuspegia txertatzearen beharra. | Hirigintza araudian egindako aldaketen kopurua. |
| | | | EM 7.2. | Garraiorako elkarte publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku-hartzeko bitartekoa ezartzea. | EM 7.2.1. | Tresna estandarra osatzea, garraiorako elkarte publikoek emakumeen beharren arabera egokitu diren ala ez jakin dezaten. | Herritarren beharrak jasotzeko bitartekoak izatea. |
| | | | EM 7.3. | Ingurumen arloko jarduera ekintzetan genero-ikuspegia txertatzeko eredua ezartzea. | EM 7.3.1. | Agenda 21ean genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra diseinatzea. | Genero-ikuspegia txertatzeko mekanismoa izatea. |
| | EE 7. | Emakumeen parte-hartzea eta parekotasuna lortzea hirigintza, garraio eta ingurumen arloko planifikazio, diseinu eta hobekuntza prozesuetan. | EE 7.1. | Herritarrak kontzientziatzea hirigintza arloko erabakiek emakumeen bizitzan duten garrantziaz eta emakumeen parte-hartzea bultzatzea udalerriko hirigintza planifikazioan. | EE 7.1.1. | Emakumeak Hirian Europako Gutuna ezagutaraztea. | Zabaldutako gutunen kopurua; kanpainaren helmen maila. |
| | EC 7. | Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko hirigintza aldetik prestatuta dagoen udalerria sustatzea. | EC 7.1. | Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea oztopatzen duten hirigintza planifikazioak eta diseinuak identifikatzea. | EC 7.1.1. | Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko hirigintza planifikazioarekin eta diseinuarekin lotutako oztopoen eta praktika egokien diagnosia egitea. | Diagnosi txostena. |
| | EV 7. | Udalerriko emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa areagotzea. | EV 7.1. | Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, gune publikoen planifikazioa eta diseinua hobetuz. | EV 7.1.1. | Hiriguneen analisia egitea, emakumeentzako arriskutsuak eta iristezinak diren guneak antzemanez. | Antzemandako puntu beltzen kopurua. |
| | | | | | EV 7.1.2. | Hiriguneen analisian antzemandako gune arriskutsuen eta iristezinen udalerriko mapa egitea. | Puntu beltzen mapa izatea. |
| | | | | | EV 7.1.3. | Kexak eta iradokizunak jasotzeko bidea ezartzea, puntu beltzen mapa eguneratzeko. | Iradokizunak jasotzeko bidea izatea. |
| | | | | | EV 7.1.4. | Arriskutsuak eta iristezinak diren guneak hobetzeko lehentasunezko neurrien zerrenda egitea. | Neurrien zerrenda. |
| | | | | | EV 7.1.5. | Udalerriko gune arriskutsuak hobetzeko neurriak ezartzea. | Hartutako neurri motak eta kopurua. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | EV 7.2. | Genero-indarkeriaren biktimei etxebizitzarako sarbidea erraztea. | EV 7.2.1. | Genero-indarkeriaren biktimei babes ofizialeko etxebizitzarako sarbideari buruzko informazioa ematea. | Sortutako informazio mota; emandako informazioaren kopurua. |
| | | | EV 7.2.2. | Babes ofizialeko etxebizitzak banatzean (alokairua, salmenta…) lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktimei, hala behar izanez gero. | Udal etxebizitzarako sarbidea izateko laguntza eskuratzen duten emakumeen kopurua. |